

CIEMEN-en IV. Ihardunaldien azken komunikatua

CIEMEN-en («Centre Internacional Escarré per a Minories Etniques i Nationals» edo «Gutxiengo Etniko eta Nazionalen aldeko nazio-arteko Escarré Institutua») laugarren Ihardunaldiak 1979ko abuztuaren 16tik 23ra bitartean ospatu dira Cuixà-ko Abatetxean; gai hau aztertu dute: «Nazio izatea: hizkuntza, lurraldea, migrakuntzak». Hauetan parte hartu duten Euskadi, Galizia, Okzitania, Val d'Aosta, Friül, Sardinia, Flandres, Britainia eta Països Catalans-etako biltzarkideek jarraiko hau deklaratzan dute:

Hizkuntza eta lurraldea nazioaren bizitzan oinarritzko faktoreak dira. Edozein nazio da subirano horiek babesteko, defenditzeko eta bultzateko. Hizkuntza eta lurralde horiek ezin daitezke, beraz kondizionatu nazio bakoitzak berea duen hizkuntzaren lehentasunezko erabilera nariatuko duten ezarpenekin, edota nazioaren bizitokia den espazioaren gaineko kontrol kolektiboa eragotziz. Horrela bada, herriarena berarena ez den hizkuntzaren bat bere nazio-lurretan ofizialtzeko arauak, kasu batzutan, eta batez ere elebitasun jeneraldia, bestetan, zapalkuntz mota onar-ezinak dira.

Beste hau ere deklaratzan dute:

Norbere lurraldean bizitzeko eta lanegiteko eskubidea herri bakoitzaren eskubide lehena da, eta, horregatik, edozein projektu ekonomiko, sozial eta politikok eskubide honen pean egon behar du. Herrien identitaterako inolaz ere mehatxu izan behar ez duten fenomeno bezala hautematen dira emigrazioa eta inmigrazioa. Beharrezko da, emigrazioa gizarte hartzailearen akordioz egitea, eta inmigrazioa, integrazio librea errazteko, eta nola segregakuntza hala asimilatze bortsatua saihesteko medioekin tratatzea.

Zera uste dute:

Beharkizun premiatsua dela nazio ukatuen artean elkarrekiko lagunkidetasuna bizkortzea. Solidaritate hau lankidetzaren modu konkretu zehaztu behar da, nazio bezala desberdin diren herrien arteko berdintasuna eta justizia gailenaraziko duten lankidetzaren modutan, alegia. Horretarako zera eskatzen diote CIEMEN-i: Bere kompetentzien arabera, hurrengo lhardunaldiak antolatzean gai hauxe aukera dezala: alegia, nola ezagutu eta baliatu hobeki orain arte badiren lankidetzaren bideak eta nola eratu bide berriak lankidetzaren hori biziagotzeko eta areagotzeko.

Cuixà, 1979ko abuztuaren 23an.